Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Abaurregaina



Aurkibidea

Udalerria: Abaurregaina

Sarrera



Aezkoa eskualdeko herri hau Euskal Herriko altuena da (1.039 m). Gerra denboran hasi zen euskara galtzen eta gaur egun, adinekoek bakarrik dakite Aezkoako euskara, egin gutxi egiten den arren. Etena gertatu zen eta erdiko belaunaldiak ez zuen euskararik ikasi, baina gero eta haur eta gazte gehiagok dakite eta errekuperatzen ari dela esan daiteke. Eskualdeko euskaldun zaharren ustez, Aezkoako euskara mugaz handiko Garazikoaren antzekoa da, eta hilzorian dagoen Zaraitzukoa, ostera, 8 kilometrora duten Eaurtakoa (Jaurrieta) esaterako, oso desberdina da. Garai batean Donibane Garazi aldearekin harreman handia zuen eskualdeak. (Argazkia: Wikipedia)

- **Biztanleak**: 140
- **Euskaldunak**: %33,96

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **13**
- Audioak: **21**
- Bideoak: **18**

Proiektuak

- Aitor Elortzaren Nafarroako grabazioak
- Alex Artzelus Mujika
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Regina Adot (1914-2009)

Abaurregainan sortu zen 1914an, eta grabazioa 1998an egin zen Orbaran.



Julia Arregi (1940)

Txikitan etxean beti euskaraz egiten zuten, eta kalean ere asko. Baina laster pasatu ziren erdarara. Gaztetan herrian baserri lanetan jardundakoa da.

Emilia Bidondo Adot (1909)

Aezkoako Abaurregaina udalerrikoa. Gurasoak ere aezkoarrak zituen: ama Abaurregainekoa eta aita Abaurrepekoa. Bere senar Victoriano Zelairekin batera egin zion elkarrizketa Koldo Artolak 1991n.

Leoncia Conde Iriarte (1925)



Abaurregainan jaioa, Garate etxean. Beti bertan bizi izandakoa. Gurasoak laborariak ziren eta haiek ere herri berekoak, baita senarra ere. Hiru alabatan gazteena, bi mutiko jaso zituzten, besteak beste etxean laguntza eman zezaten. Aezkoan gerra zibilean errepresio zuzenik pairatu ez zuten arren, maquisen ibilerak oso gogoan ditu. Gurasoen antzera, laborari-etxe batek dituen zereginetan ari izan da bizitzan zehar.

Laxaro Loreaen emaztea eta Juan Jose Lorea Condeen ama.

Pedro Iriarte (1937)



Laboraria eta abeltzaina. Basoan ere lan egindakoa da gaztetan Iratiko oihanean. Gaztetan euskaraz egiten zuten Abaurregainean. Oraindik ere egiten dute apur bat. Erro, Auritze eta Jaurrietakoekin, berriz sekula ez omen du egin. Zuberoako euskara berearen oso antzekoa iruditzen zaio, Zaraitzukoa, berriz, ezberdina. Bizkaian egona da inoiz, eta ez zien deus ulertzen bizkaitarrei. Gipuzkoarrei, berriz, gehixeago.

Laxaro Lorea (1918-2006)

Bilbon egin zuen soldadutza, baina denbora baino lehenago lizentziatu zen familia arazoengatik. Leoncia Conderen senarra eta Juan Jose Lorea Conderen aita.

Juan Jose Lorea Conde (1958)

Kanpin bateko langilea da. Aralarkidea da 2006tik eta Abaurregaineko zinegotzia 2003tik. Laxaro Lorea eta Leoncia Conderen semea. Grabaketan zehar gutxi mintzatzen da eta gainera haren ahotsa ez da ongi entzuten.

Klaudia Merino Zelai (1937)



Abaurregainan jaioa, Sargentoenia etxean. Beti bertan bizi izandakoa. Gurasoak laborariak ziren eta haiek ere herri berekoak. Sei senidetan bosgarrena; dioenez, denak euskaldunak, amak eginarazten baitzien. Gurasoen antzera, laborari-etxe batek dituen zereginetan ari izan da bizitzan zehar, baina gainera zinegotzi izandakoa ere bada.

Victoriano Zelai Bazterra (1911)

Aezkoako Abaurregaina udalerrian jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bere emazte Emilia Bidondorekin batera egin zion elkarrizketa Koldo Artolak 1991n.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Txikitan euskaraz etxean, baina eskolak erdara inposatu zien

- **Hizlaria(k)**: Arregi, Julia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/001
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Juliak hitz egiten du. Aurkezpena. Herrira itzuli da bizitzera. Txikitan etxean euskaraz hitz egiten zuten, kalean ere bai, baina eskolan debekatzen zieten eta galduz joan zen.

Transkripzioa

- Bueno, epa! zu zein zara?
- Hara!
- Zein izen duzu?
- Zer?
- Zoin izen duzu?
-“¿No ves? ¡No nos comprendemos!”
- “¿Qué nombre?”
- A! Zer nombrea? Klaro! Julia Arregi.
- Julia Arregi?
- Bai.
- Abaurregaiñekoa?
- Abaurregainekoa.
- Eta noiz xaioa?
- Pues, “el doce de abril del cuarenta”.
- Zer, gustatzen zaizu Abaurrea?
- Bai, bai, ler.
- Ainitz?
- Bai, bai, gorrengatik baratu [nizien].
- Bizitzeko toki trankila? Leku trankila?
- Bai. Bai, bai, ongi.
- Ta euskaraz anitz egiten da kemen?
- Ia elekatzen duten anitz?
- Bai, ia elekatzen duten anitz.
- Ez, guti, guti. Bai.
- Ya gaztie...
- Gihau erdera.
- Gaztiek gihago erdara, ez?
- Gaztek ere, pues... Alabek ez dakite... eta gero, pues, nola-gala ez dugu elekatzen. Ez.
- Ez zenien erakutsi?
- Ez, ez dugu erakutsi alabei eta semea ezta ere... Ez.
- Bai, Francon denporan-eta ainitz persegitua izan zen.
- Ze?
- Francon tempretan-eta persegitua.
- Klaro! Klaro! Batzure zemeit urtez izan ze, pues, persegituik euskera. Ta gorrengatik utzi gindue elekatzea.
- Bai.
- Bai, bai.
- E, zuek eskolan mintzatuz geroz?
- Eskolan...
- Mintzatuz geroz?
- Eskolan pues faten gine, bai, mintzatzen gine, bai.
- Eta zer, maisu, maistruak...?
- Baia maistruak ez zue nahi.
- Maistruak zer egiten zizun?
- Ez zuen nahi elekatzea euskera, geroztik, pues... Guk etxean elekatzen gindue euskera eta gero fan eskolara eta maistruak ez zuen nahi gori. Eta geroztik, pues, gor kortatu ze.
- Eta gero maistruak zigorra egiten zizuen?
- E?
- Maistruak zigorra, e, kastigo, kastigua ematen zizuen?
- Kastigoa? Ez, ez, ez, ez, ez.
- Ez zuen ematen.
- Ez, kastigoa ez.

- Gortraa ez gine eilegatu. Baia ez zute nahi, ez zute nahi maistroek.
- Ez zuten nahi.
- Ez.

1.2. Aezkoan gutxi euskaraz, Zaraitzun batere ez

- **Hizlaria(k)**: Arregi, Julia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/002
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:02:13. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Bailaran (Aezkoan) gutxi hitz egiten da euskaraz. Abaurregainen adin nagusikoak mintzatzen dira zerbait. Eaurtan (eta Zaraitzun oro har), batere ez. Zaraitzuko euskara "distintoa" da.

Transkripzioa
- Gemen inguruan ere mintzatzen da? Bertze herri baten?
- (Senarra): Ez, ez, esto... Baillaran guti, e.
- Baillaan guti.
- (S): Geen, herri gentan ez dugu, gure artean; gure adin [...] artean, bai, hor elekatzen dugu zerbait, e. Baia baille guzian abantxu, oso guti, e, bai, bai, guti.
- Beti erderaz, beti erderaz. Juntatu gor baillan...
- (S): Hori gaztek, gaztek, bueno, haurrekin, e, pues, eskoletan... bada, pues, gero, pues ikasten de pixkat euskara. Gaztek eskolakoek, baia jende zer artean baillan, ene adinekoekin pues, esto, goiti, ez da, ez da abantxu ja eskueran elekatzen.
- Eta Jaurrieta ta inguru gortan?
-(S): Buo, gortan ja.
- Gor, deus'e.
- (S): Ingru gortan, zemaitek baia...
- Eske da distintoa.
- Bai.
- Euskera da distintoa.
-P: Ta Otsagikoa baita ere.
-J: Ta geroztik pues...
-A: Baina, badakie, ez?
-J: E?
-A: Badakie.
-J: Bai, badakite, baia distintoa.
-P: Eaurtan ez badakite inork ere.
-J: Gure adinekoak seguro baietz.
-P: Inorkek ez zakin.
-J: Ez?
-P: Ya...

1.3. Eskolara joan arte euskaraz mintzatzen ziren

- **Hizlaria(k)**: Arregi, Julia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/004
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:04:12. **Bukatu**: 00:04:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolara joan arte euskaraz mintzatzen ziren, baina gero utziz joan ziren.

Transkripzioa
- Ziek txiki zinielarik? “¿Cuando erais pequeños?”
- A, “¿cuando éramos pequeños? Sí”. Pues, etxean elekatzen gindue euskeras.
- Ama eta guzi?
- Bai, bai, amarekin ta guzia, bai,bai. Eskolara hasi artio faten.
- Bai, eta…
- Baia gero eskolan hasi gine eta ya gura fan ze utziz.

1.4. Zuketa, Xuketa eta hiketa

- **Hizlaria(k)**: Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/019
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:26:02. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak
  Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Zuketa, xuketan eta hiketan egiten dute bai Zuberoan eta bai Aezkoan. Berorika ez. Apaizari zuketan, pertsona nagusiei bezalaxe. Haurrei xuketan. Hiketan lagun artean. Xuketan nola egiten den azaltzen du.

Transkripzioa
- Pedro: Bai, bai, bai. Eta elekatzen dute /elekatzeute/, guk elekatzen dugu /elekatzeugu/ hirur zeretan, hirur modalidetan: zuketan, xuketan ta hiketan. [Gola] elekatzen dugu gen, eta gor dute berbera!
- Eta berorika ere bai, ez? Apezari eta gola?
- P.: Nola?
- Apeizari, apezari ta bertze gisa batetan?
- Julia: Apezari “de usted”.
- P.: Alkateari […].
- J.: Zuketan. Alkatea da gu bezalakoa, gu bezala. Baia, gero apeza da bertze kategoria bat.
- Maistruari ta, berori ez? Erraten [dakozie]?
- Ez, honek esan du hiru desberdintasun desberdin: hika, bat. Gero, xuketan…
- P.: Zuketan ta xuketan.
- A, ta xuketan?

- P.: Xuketan.
- Hori da berorika.
- P.: Guk gen lehen, haurrei, haurre txikii elekatzen zuten, hiru urte, lau urte, edo sei urte arte igual, edo zortzi urte ere xuketan. Haurrei xuketan. Eta gizonei ya adinetakoak, ya zaharrei, zuketan.
- Hori da gure berorika.
- P.: Gurea da, [gurea ez] zuria. Eta gero, gure gazte, esto, gazten artean hiketan.
- Nik be bai /pebai/, nik be /pe/ hika badakit.
- P.: […] Orai, orai gure guzia gen galduta dago /galdutago/.
- J.: Orai galdu da guzia. Orai apezari ere, erraten da igual nola bertze bateri.
- Guk ez, guk desberdin erraten ginue.
- P.: Ademas...
- Guk be /gupe/ honek esan dauen hiru desberdintasunak.
- Orai galdrik da, baia...
- P.: Ademas, apezak ere pues ez dakite batere ona euskara. Batere ez dakite.
- J.: Bai, baia erderas ere apezari ez xeok /etxeok/ erraten “de usted”!
- P.: Ez ez, hori ez. Hori hiketan, hiketan hori.
- Hiketan?
- P.: Bai.
- Eta xuketaz oroitzen zra zu? Oroitzen zra xuketa?
- P.: Ni bai! Pues igual nola orai euskaraz hiketan.
- Xardoki deikizu, guti?
- P.: Bai bai! Xuketan? Jobar! Utz xaxu /utzaxu/, har xaxu /hartxaxu/, edo xaxi harata, xaxi honata.
- J.: Hori haurrei, gaztei.
- P.: Haurrei. Ekartxu, ta... Bai bai. Zer in duxu, edo zer in duxu atzo, edo...
- Suabiago pixkat.
- P.: Bai, haurrei pues, ta gori.

2. Baserria

2.1. Soroko lanak: garia eta gari-jotzea

- **Hizlaria(k)**: Arregi, Julia; Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/005
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:04:32. **Bukatu**: 00:07:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gaztetan Julia soroan lanean aritzen zen. Gizonezkoak hartzen dio hitza. Gari-lanak azaltzen ditu.

Transkripzioa
- Ibiltzen ziñien soroan eta lanean?
-(Emaztea): bai,bai, lanean “¡hombre, ya lo creo!”, alorrean.
- Zenbat lan?
-(E): bua, pues, guziekin.
- Pataka xorran.
- Astoen gisa.

- Pataka jaiotzen zirelarik, pues aitzurrekin, belarra kentzen, gori da xorratzea.
- Xorratzen?
- Bai ta, guzietan! Gero, orduan, garia, pues, esto, mozten ze tailuekin. Esto, badakizu zer den
tailua?
- Ez.
- Pues, zera, “guadaña”.
- A, “guadaña”? Guk sega erraten degu, tailua ziek?
- Guk tailua gen. Ta tailuekin, esto, mozten ze garia gen, eta gero faten zire pues emaztekiak biltzen, esto, aurbenak. Aurbenak zira, pues, esto, nola erraten da euskaraz?
-(E):Taila-maila!
- Taila-maila, gori.
-(E):Taila-maila.
- Ta gori, gori zer da, taila-maila?
-(E):Gori da, pues, garia, garia biltzen ze…
- Taila-maila da, tailuekin mozten delarik, baratzen delarik, mozten… gori, gori da taila-maila.
- Taila-maila?
- Bai. Tailuekin, bueno, esto, mozten baita, gero goardatzen da, pues, moztu bezala erortzen da garia, edo belarra, ta gori deitzen dugu lehen, esto, deitzen ginue taila-maila.
- Taila-maila.
-Erronkan taila, gero, esto, tailaria faten ze moztuz ta moztuz… eta baratzen ze pues erronka
bat, “una fila” erraten ze bezala.
- Bai, erronka bat.
- Ta gero emaztekiak faten zire eskuz biltzen.
- Eskuz biltzen dena.
- Eta eskuz biltzen, pues gori da, zerak, maxkilak, ta ger … erronkan, zuzen-zuzen erronkan. Gariak, esto, gari-buruak, bata bertzin, esto, beira.
- A, bai?
- Ya,ya,ya,ya. Ulertzen dizugu.
- Polliki baratzen zire, bai.
- Eta gero errotara horrekin guziekin?
- (E): gero gorrekin trilladorara, bueno, lehenik, hona “ en la era, ¿cómo, cómo se dice?”
- Hori da, hori da, guretzako "gari jotia".
-(E): Bai.
- Larreina.
-(E): pues geen "larreina".
- Larreina, bai, bai, bai.
- Larreina, gen larreina.
- Larreina.
-(E): Utzi larreinian gura eta gero, pues, zamari batzurekin...
- Baina guk ez dugu…
-(E): Geinean ibili…
- Guk ez dugu [hori zertu. Gu guti, gori ez dugu…
-(E): Baina lehen hala zuan.
- A, lehen, aita ta ame bai, aita ta amak...
-(E): Klaro.
- Pues garia ta ekartzen dutela larrainera eta… Bihorrekin edo zamariekin, pues aultzia larrein inguruan…
- Bai.
- Pues, esto, gariak, gari-buruak, ya, agotzen…

- Aletu? Hori da.
-(E): Klaro.
- Pues agotzean baratzen zena.
- Aletu esaten dezue?
-(E): agotza kendu…
- Agotza pikatzen ze…
-(E): ai ama!
- Estrasiakin, estrasiak, guk estrasiak, esto, “los trillos”, hori geen euskaraz estrasiak.
- Bai.
- Eta pikatzen ze agotza eta gero arrastelu batzurekin, pues, kenduz, kenduz goitiri-goitiri baratzen ze xehe-xehena, garia baratzen ze, agotz, agotz xehe-xehe gorrekin. Ta gori…
- Agotza zeri deitzen dakozue?
- “La paja.”
- A, agotza.
- Lastua.
- Agotza.
- Guk lastua.
-(E): lastua.
- Guk… bueno, guk lastoa ere..., baina guk kasik agotza.
-Bai.
- Agotza?
- Bai, beti agotza. Ta agotza sartzen ze, pues, esto, sabean, sabean ta gero, pues, aziendendako.

2.2. Gari garbitzea

- **Hizlaria(k)**: Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/007
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Garia jo eta gero nola garbitzen zen.

Transkripzioa
- Eta gero, pues, esto […], zertzen ze, montioa ta guzia larrein erdi-erdian…
- (Emaztea): “pásale”.
- Biltzen ze gari guzia…
- Aditzen da, aditzen da.
-(E): a, aditzen da.
- Eta gero pues abentadorekin. Abentadorarekin eskuz emanez, ez zire, botatu, esto, goitirik... eta haize ematen dizu abentadorak, pues agotza botatzen zizue alde batra… Eta gero garia etortzen ze antzina.
- Bai.
- Zer batzureki, nola deitzen ze? Nola? Euskaraz nola zire? “Unas cribas eran”. Gure euskarak... ez naiz oroitzen. Badakit baina orai ez naiz oroitzen.

2.3. Garia eta ogia

- **Hizlaria(k)**: Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/010
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:14:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Jaten zuten arto apurra erosia izaten zen. Gari-irinaz ogia egiten zuten. Gaur ere garia ereiten da, baina ez lehenago beste.

Transkripzioa
- Artoa ere ereiten ziñien?
- Artoa ez; artoa geen, geen... Eroste ze artoa; xateko geen pixka bat... esto xaten zena ze erosia.
Geen artoa ez da...
- Hemen morokilla ez zenuten jaten?
- Ez, ez, ez, ez, ez.
- Morokilla da...
- Artoarekin egiten den...
- ... arto- iriñarekin egindako...
- Bai, torta batzu egiten zire.
- Esneari bota...
- Bai, gori.
- Guk hola, hola...
- Gen, geen etxean...
- Ni berrogeita hamaikan jaiotakoa naiz, e.
- Sukaldean...
- Baserrikoa.
- A...
- Ta han hola jaten giñuen.
- Emaztea: ya, ya.
- Ni hamabi urtera arte dena baserriko bizimodua.
- Ya, ya, ya...
-(E): nik gori abantxu ez dut [...] ta hortaz...
- Eta guk morokilak jaten genuen, goizean eta gauean morokilla esnearekin.
- Gen ez, gen desaiunetako, bueno, hain ogi...
-(E): ogia ,baia...
- Zaharrek edo... zaharrek igual egiten zute gori, baina guk ogia xaten ginue, esto, gazteei...
-(E): Ogia esnearekin.
- Ogia beltza ala zuria?
-(E): zuria, zuria, zuria.
- Ez, esto, franko zuria.
-(E): nik zuria, zuria.
- Geen egiten ze etxean, esto, egiten ze, pasten ze zer batean zedazo batean, bueno, esto, makina bat ze; makina edo nola deitze ze? Tornua.
-(E): tornua.
- Tornua da hemen?
- Tornua ta... Esto, botatzen ze... ze redondoa, ta ba zue hirur, hirur, esto, departamento, ta azkenereko ya xehe-xehea irina franko ongi. Ta gero

pues, iten ze, esto, ogia etxean. Etxe guzietan baze labeak.
- Ogi zuria?
- Bai, franko zuria.
- Orai geldirikdira labeak?
- Bua, jode, orai… Desaparezituik daude orai. Orai desaparezitu labe guztiak.
- Leku anitzetan kontserbatzen dute ta gorrengatik.
- Gori […] zenbait herrietan igual bai. Baina geen gauza horik ez da batere ja. Ez, geen ez da batere ez.
- Eta orai garia utzi duzie, eta orai belarra?
- Orai, orai… Ez, esto, garia bada ere. Orai garia, "lo único", pues gori garia aziendendako, piensotako. Piensotako orai, esto, kosetxadorekin. Etortzen da kosetxadora... ta makinekin. Orai, gori, bua! Gori gen ez da lana. Gori egiten genue.
- Baina soroan orai jende guti lanean.
-(E): Ai, soroan!
- A, bai, bai. Guti, guti, bai. Gori, ezta… ezta erdi ere. Esto, lehenak, lehen… urte gen… Bua, gori… orain “lo más” sei edo zortzi laborari daude ta orduan hogeita hamar baino iago. Aisa bai, igual,
esto, berrogei hona laborari baginen geen.

2.4. Zaldiak eta mandoak

- **Hizlaria(k)**: Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/011
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:14:55. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Zamariekin egiten zuten gehienbat soroko lana. Zaldiak dira "osatu" (zikiratu) gabeak, behorrak emeak, eta zamariak osatutakoak.

Transkripzioa
- Orduan nola egiten zenuten behiakin, idiekin eta…
- Orduan, niri… niri tokatu zida…
- … ardiekin?
- Idiekin. Ta idiekin ta behiekin eta gero… Abreak. Esto, mando batzuk.
- Mandoekin?
- Bai.
- Bai, edo zamaria edo mandoak.
- Zamaria zeri erraten dakozie?
- Zaldiari.
- A, zaldiari zamaria.
- Zaldiari.
- (E): “ los caballos”. “ A los caballos”.
- Esto, zaldia deitzen dugu… Ez daona osaturik.
- A, ez dagona osaturik.
- Eta zamaria osaturik (irenduta) daona.
- A.
- A, guk ez ditugu desberdintzen goiek.

- Guk ez ditugu desberdintzen.
- Ya, ya, pues bai.
- Behorra ta gero zaldia.
- Behorra zaldia... [...]
- Zaldia bai. Pues, esto, zaldia ze bihorrekin, esto, kubritzen zena. Eta zamaria osaturik zeona.
- Bai.
- A, bai.
- Osaturik zeona. Zamaria deitzen ginue gori. Behar zun izan osaturik.
- Bai.

2.5. Belarra mozteko makina

- **Hizlaria(k)**: Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:16:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Tailuekin (segarekin) mozten zuten belarra, baina Frantziatik ekarritako makina bat ere ezagutu dute gaztetatik.

Transkripzioa
- Lehenago ere belarra [...] mozten zinuen ta hola?
- Tailuekin orduan. Bai, bueno, tailuekin... Esto, tailuekin zerbeit. Esto, ni... gazte-gazte... bai. Aita ta amek ere idiekin, esto, bazute makina kortatzeko. Idiei, esto, engantxatzen ze, esto, makina bat eta... Esto, makinak mozten zue belarra.
- A!
- A, ta makina bazinien?
- Bai, bai, bai. Ni ez [...] ezkondurik. Ama... Ama, esto, ene ama gazte ze ere. Frantziatik hona ekartzen omen zute. Ene abueloak ekar zue Frantziatik.
- Orduan bai, Frantzia aitzineratuagoa?, más adelanto"?
- Geen Auritz, Auritztik... Esto Auritztik ekartzen zue, bai.
- Bai.
- Pues idiei, esto, engantxatzen ze eta... Pues, esto garekin mozten zute belarra.

3. Politika

3.1. Gerraosteko arrazionamendua. Errotak

- **Hizlaria(k)**: Iriarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ABA-001/009
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:09:52. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena**: Gerraostean ez zuten goserik pasatu. Arto-esnea jaten zuten gosaltzeko. Errotak prezintaturik. Abaurrepera eramaten zuten garia ehotzera. Errepidetik urrun dago eta ez zen arazorik izaten.

Transkripzioa
- Geen ez ginuen pastu, esto, goserik.
- Ez, goserik ez.
- Ez, nola ez, geen?
- Geen, edo, bueno, oroitzen niz, esto, ez beitize ogia gain… usu ibiltzen, desaiunetako artoa…
- Ya.
- Esnekin arto […]
- Arto-esnia.
- Bai, arto-esnea, ta nik banekie, ez neuke xan gura "nipadiós".
- A, ez?
- Ez.
-(Emaztea): ez zen goxo gura!
- Kartillak ematen zuzte. Kartilla razionamentua. Razionamentua, garia-ta… gero, geen, pues, garia egiten baitze, larrainetan gori, esto, elekatu dugun bezala, pues, esto, garia baze hona etxetan. Eta errotara ematen ze hona zertzea.
- Bai, irina…
-(E): iotzra, iotzra.
- "Aunque" prezintaturik ere zaude, hona errotak ere prezintatu zituzte.
- A, bai? Eta iotzra zer da? A, iotzra.
-(E): Klaro.
- Kontrabando, gori. Nik aitari, aita behin baino gehio fan da igual hiru edo lauretako egunan edo.
- Bai.
-(E): Goizean.
- Goizean errotara, eta errotazaleak, esto, prezintoa hausten zue, baia ez zire enteratzen esto,
“los de abastos”, nola da?, errate zute bezala. Eta…
- Hori da, hori da, ezkutuan bai.
- Gorrengatik pues…
-(E): “ala, venga, ven aquí”. Ala, atrás!
- Pues, geen ez ze pasten goseik. Irina ba ze, ba ze, juxto-juxto, baia. Ez zeike io gala fan trankil-trankil hona errotara ta ez, ez, pues, esto kontrabando bezala, ez. Kostala orduan, zakuak bazire gora, esto, zer batzu zire, kostalak, gola ia deitzen zire geen. Mehar-meharra baia luzeak.
- Bai.
- Eta emeki-emeki, pues gose… Gose ez gine pasten, ez. Baia juxto bai, juxto-juxto bai ibiltzen [gin] ta… Pues gala.
- Nik aditua dut toki batzutan errotari ezartzen zakotela egurrian tak-tak egiten duen gortan goma bat, ta gala ez zela entzuten, ez prezintatzeko ta gola.
- Geen ginue…
- Ez, ez jakitzeko.
- Ez jakiteko errota bazela…
- A bueno.
- Ipini goma bat eta gala ez zuela…
- Ez, geen ez. Aunke ler… ler azantz iten bazue errotak ere, igual zeo zilo

batean,
Abaurrepean, gen, herri ... behitiko bentan, zeo errotan eta karreteratik ere aparte zeo, ta gor... gor ez
ze... ez zire faten. Fan behar zute errotara zerera [...] errotaragereino.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita Iratiko basoan lanean (ABA-001/013)

Aita eta haren anaiak Iratin ibili ziren lanean. Orduan ez zen lan askorik bazterretan eta norabait "brinkatu" (joan) behar.

2. Txerrikia jateko, bestelako haragia salzeko (ABA-001/014)

Bizimodu estua zen. Bizitzeko adina ateratzen zuten. Jaten ere kapritxorik ez. Pare bat txerri hiltzen ziren. Haragitako abereak eta oilaskoak saltzeko izaten ziren. Noizean behin axuriren (arkume) bat hiltzen zuten arren. Orduan ez zen izozkailurik.

3. Kontrabandoa (ABA-001/015)

Abaurregainen lehenago kontrabandorik ez. Orbaizetan, Aurizberrin eta Iaurtan (Eaurta, Jaurrieta), ostera, bai. Azkenaldian zaldi-kontrabandoa dago.

4. Jaurrieta erdaraz, Iaurta euskaraz (ABA-001/016)

Garbi dute Jaurrieta erdaraz dela eta Iaurta euskaraz.

5. Ariben merkatua (ABA-001/017)

Hamabostero egiten zen Ariben abere merkatua. Guztiak bizitarako: behiak, idiak eta abar. Aretzea: urtebete azpiko txahala. Bigortzea: urtebete eta piko.

6. Bizkaiko euskara oso ezberdina, Nafarroa Beherekoa berbera (ABA-001/018)

Duela urte batzuk Bilbon izan zen ganadu-azoka batean. Bizkaitarrei ez zien deus ulertzen. Gipuzkoarrei gehiago. Zuberotarrek, berriz, euskara berbera dute.

7. Euskararen galera prozesua eskualdean (ABA-001/020)

Erro eta Auritzeko jendearekin ez du inoiz euskaraz egin. Jaurrieta eta beste zaraitzuarrekin ere oso gutxi, ez baita han ia euskararik egin azken urteetan. Abaurreagainen, berriz, gaztetan beti euskaraz elekatzen zuten.

8. Astearen egun-izenak (ABA-001/022)

Astelehena, asteartea, asteazkena, ortzeguna, ortzilarea, larunbata eta igandea.

9. Haurrideak beti euskaraz (ABA-003/001)

Abaurregainekoa da jaiotzaz, eta han senide guztiek jarduten zuten euskaraz. Orain Orbaran bizi da eta hemen ulertu guztiek, baina gutxi egiten da.

10. Joanes Iriartekoren ipuina: elizako intsentsu-ontzia (ABA-003/005)

Joanes Iriartekoren ipuina: Iruñera joan zen intsentsu-ontzia erostera, eta bidean izena ahaztu. Baina moldatu zen nahi zuena adierazteko.

11. Jaurrietako neska ezkongaiaren ipuina (ABA-003/006)

Zaraitzuarrek desberdin hitz egiten zuten. Jaurrietako herri-ipuin bat kontatzen du: ezkondu nahi duen neskazahar baten eta sakristauaren arteko elkarrizketa xelebrea.

12. Euskaren egoera bere familian (ABA-003/008)

"Legeak eta afera guziak erderaz dira-eta" dio euskararen galera azaltzerakoan. Seme gazteak badaki euskaraz. Gizonaren ama Ariakoa zen eta familia hark beti euskaraz egiten zuen.

13. Kantu elebiduna (ABA-003/010)

Kantu baten letra elebiduna errezitatzen du: "Por esta calle bajamos/ gitarra zar batekin / y la prima va diciendo: nork nahi du ezkondu enekin?"

14. Kantu elebiduna (ABA-003/012)

"Marikita pelona/ Salte al eguzki/ que tu culo parece/ errota-estalki."

15. Elizan beti erdaraz (ABA-003/013)

Apaizak erdaldunak ziren eta dotrina eta dena erdaraz ezagutu du.

16. Barre egiten zieten abaurreatarrei euskaraz egiteagatik (ABA-003/015)

Eskualdean barre egiten zieten euskaraz egiteagatik. Eskualdeko euskararen egoeraz mintzatzen da. Iriberrin gehiago omen dakite. Baina zakarrago hitz egiten dute eurak baino

17. Intxaurraren igarkizuna (ABA-003/016)

Intxaurraren (etxaburra) igarkizuna: "Arka txiki ponpollinatu! giltzaik gabe desarreglatu."

18. Aitona nola esaten den (ABA-003/018)

Aitabitxia, aitagutxia?, baina "abuelo" oso zahar delarik.

19. Soldadutzako kontuak (ABA-006/002)

Bilbon egin zuen "soldadungoa". Han eta atzera-aurrera ibiltzean ezagututako lekuak.

20. Abaurreagaine herri euskaldunena (ABA-006/004)

Abaurregainen zaharrek egiten dute euskaraz. Arian eta Iriberrin ere bai. Abaurrepean batere ez. Gerra aurretik galdu zen han maistra erdaldun batzuk etorri zirelako. Eurek etxean beti egiten zuten euskaraz.

21. Zaraitzun euskaldun gutxiago Aezkoan baino (ABA-006/006)

Leoncia, emaztea, mintzatzen da. Zaraitzun euskara egiten da baina gutxiago. Gainera, oso hurbil egon arren, oso diferentea da hango euskara.

22. Salvador Karrika, Eaurtako euskalduna (ABA-006/007)

Eaurtako Salvador Karrikaz, Zaraitzuko ia azken euskaldunaz, mintzatzen dira. Benidorren ikusi zuten azkenekoz. Zaraitzuko euskararen berezitasun batzuk aipatzen dituzte.

23. Aezkoa osoan berdintsua euskara (ABA-006/009)

Aezkoa osoan euskara "aire berekoa" egiten da. Donibane Garazin ere berbera dute. Zaraitzun oso gutxi egiten da, eta Erronkarin batere ez.

24. 'Euskadi Irratia' ulertzen du Laxarok (ABA-006/012)

Bilbaotik ematen duten emisora, Euskadi Irratia, ongi konprenitzen du Laxarok. Ongi eta garbi elekatzen dute.

25. Lexikoa (ABA-006/015)

"Amutxa" esaten zaio amonari, "apitxi" aitonari. "Esker mila", eskerrik asko.

26. Abaurregaineko gabon-kanta (ABA-013/001)

Aspaldikoa den gabon-kanta bat abesten dute. Emiliak dio bere amak ere ez zuela ongi ikasi.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com